

Aramaioko Lore Jokoak Juegos Florales de Aramaio 1899



Pedro **Uribarrena**
Anunciación Iñigo de los Ríos

13

colección
Lankidetzan
bilduma

Aramaioko Lore Jokoak

Juegos Florales de Aramaio 1899

Laburpena. Resumen. Resumé	9
----------------------------------	---

ARAMAIOKO LORE JOKOAK 1899

Alkatearen agurra	15
Hitzaurrea	17
Sarrera. Aramaio 1899an	19
Aramaioko Lore Jokoak	21
Aramaio Iraileko 9an eta 10ean	27
Antolatzaileekin arazoak	29
Eranskina: Saritutako olerkiak	31
Erabilitako iturriak	39
Aramaioko Lore Jokoen mendeurrena	41
Album fotográfico	43

JUEGOS FLORALES DE ARAMAIO 1899

Saludo del Alcalde	59
Prólogo	61
Introducción. Aramaio en 1899	63
Los Juegos Florales en Aramaio	65
Aramaio 9 y 10 de Septiembre	71
Problemas con la organización	73
Anexo: Poesías Premiadas	77
Fuentes utilizadas	85
Centenario de los Juegos Florales en Aramaio	87

Resurrección María de Azkue eta Vicente Goikoetxea auzokide izan ziren Lekeitio, Vicente Aramaioko semea bazen ere. Bien arteko adiskidetasun mina zela eta, Lore Jokoak ez ziren Azkueren jaioterrian egin eta bai haren lagunaren herrian. Azken antolatzailea izan zen Aramaioko Udalarekin arazo larriak izan ondoren, hartarako eskaturiko eta idatzitako meza ezin kantatu zelako, jai biziko bi egun ospatu ziren eta arrasatearrek parte hartze handia izan zuten bertan. Jaiak amaiturik, arazoak izan ziren oraino Antoine d'Abbadieren alargunak emaniko dirulaguntza ordaintzerakoan. Gure egunotaraino iritsi den Vicente Goikoetxearen dokumentazioan ez dira arazo horiek inon ageri, Bixenteren izaeragatik segur aski.

La intensa amistad entre Resurrección María de Azkue y Vicente Goikoetxea, ambos vecinos de Lekeitio y éste hijo de Aramaio, hizo que se celebraran los Lore Jokoak en esta última localidad en detrimento de la localidad natal de Azkue. Tras graves problemas con el Ayuntamiento de Aramaio, organizador final de la fiesta, por no poderse cantar la misa pedida y escrita para tal fin, se celebrarán dos días de animada fiesta con gran participación de mondragoneses. Concluida la fiesta, también se reflejan problemas por el pago de la subvención que provenía de la viuda de Antoine d'Abbadie. En la documentación existente de Vicente Goikoetxea en ningún momento se reflejan dichos problemas, posiblemente debido a su carácter.

La profonde amitié entre Resurrección María de Azkue et Vicente Goikoetxea, tous deux voisins de Lekeitio et cet enfant de Aramaio, fut à l'origine de la célébration des Lore Jokoak dans cette dernière localité au détriment de la localité natale de Azkue. Après de sérieux problèmes avec la Mairie de Aramaio, organisatrice finale de la fête, à cause de l'impossibilité de chanter la messe commandée et écrite spécialement pour l'occasion, seront célébrés deux jours de fête avec une importante participation des habitants de Mondragón. Une fois la fête achevée, on relève également des problèmes dus au paiement de la subvention qui provenait de la veuve de Antoine d'Abbadie. Ces problèmes ne sont pas reflétés dans la documentation existant sur Vicente Goikoetxea, probablement à cause de leur nature.

Aramaioko Lore Jokoak

1899



Pedro **U**ribarrena
Anunciación **I**ñigo
de los **R**íos

Aramaioko Lore Jokoak 1899

Alkatearen agurra	15
Hitzaurrea	17
Sarrera. Aramaio 1899an	19
Aramaioko Lore Jokoak	21
Aramaio Iraileko 9an eta 10ean	27
Antolatzaileekin arazoak	29
Eranskina: Saritutako olerkiak	31
Erabilitako iturriak	39
Aramaioko Lore Jokoen mendeurrena	41

LORE JOKOAK ARAMAION

Orain dela mende bat, 1899ko irailaren 9 eta 10ean, Lore Jokoak egin ziren Aramaion, eta aurtengo irailean mendeurren hori ospatuko dugu hainbat ekitaldi eginez.

Halaber, eta Mendeurrenaren ekitaldien barruan, zenbait lagun eta erakunde herriko seme-alaba kuttun izendatuko ditugu.

Oraingo honetan orduan baino apalkiago ospatuko dugu; izan ere, 1899. urtean herriko jaietan baino sei aldiz gehiago gastau zen Lore Jokoak antolatzen.

Lore Jokoen helburu nagusia jai-giroa egiteko herriko moldeak erabiltzea zen, horregatik antolatzen ziren probak eta demak: ibiltarienak, danbolinjole eta albokarienak, bertsolari eta olerkariak, gorulariak, abere-demak...

Baina, horrez gain, baziren ere jende haiek abertzaletasuna agertzeko eta euskal aberiaren alde azaltzeko modua. Areago, jasota dago nonbait Madrilgo Diputatuen Kongresuan hemengo diputaturen batek esan omen zuela lore jokoak antolatu ez izanaren arrazoa euskaldunen abertzaletasuna gainbehera etorri izana zela. Gogoan izan euskal foruak bigarren guda karlistaren ostean, 1878. urtean, abolitu zirela.

Orain dela mende bat, Bizente Goikoetxea haraneko musikariak ospakizun horretarako meza bat konposatu zuen, Azpeitiko eta Gasteizko abesbatzek kantatu behar zutena, baina garaiko arrazoiak direla-eta, arrazoi politikoak besteak beste, ezinezkoa izan zen estreinaldia egitea. Horregatik, iaz Aramaioko Udalak Lore Jokoen mendeurrena ospatzeko arabakia hartu zuenean, haraneko beste musikari bati, Sabin Salaberriri, arduratu zitzaion meza horren prestaketa, Aramaioko Bizente Goikoetxea abesbatzak, behar bezala lagundurik, kantatzerik izan dezan.

Lerro hauen bitartez agertzen diet nire eskerrona Mendeurrena antolatzen lagundu duten erakunde guztiei, eta nire desioa ere agertu gura dut: Eusko Ikaskuntzaren beka batez lagundurik plazaratzen den argitalpen hau Lore Jokoak hobeto ezagutzeko baliagarria izan dadila, eta egun hauetan Aramaiora biltzen den jendeak, bakean eta oparotasunez, herria maitatu eta euskaraz bizi izateko aukera izan dezala.

Iñaki Nafarrate Kortabarria
Aramaioko alkatea

HITZAURREA

Lan hau Eusko Ikaskuntza eta Aramaioko Udalak emandako beka baten ondorioz sortu da eta bere helburua da gure Bailaran ospatutako Euskal Jaiei buruz zerbait gehiago ezagutzeari

Textua batuaz idatzita dago baina ezagutzen ditugun Azkueren testuak mantendu izan ditugu berak idatzi eta argitaratu zituen bezala Euskalzikale aldizkarian. Aipatu behar da sari-tuak izan ziren olerkien testuak Euskal Erria aldizkarian publikatu ziren bezala aurkezten ditugula hemen ere. Olerki horiek argitaratu ziren ere Euskalzikale aldizkarian, diferentzi txiki batzukin, ikusi ahal izango duzuen bezala.

Izan dadila lan hau gure omenaldia Bixente Goikoetxeari.

SARRERA. ARAMAIO 1899an

Arabian Lore Jokoak behin bakarrik ospatu ziren, 1899an hain zuzen ere, Aramaion.

Haran eder honek, urte horretan, 2.013 biztanle zituen, kalea eta bederatzi auzo artean banatuta. Bizitza bere inguruko herrietan bezala igarotzen zen, egungo eta orduko arazoekin: bideak, zergak, abere eta larre arazoak, soldaduzka, etab.

Udalaren Osoko-Bilkuren Aktak eta Karitate-Batzaren Aktak aztertzen baditugu garai hartako eguneroko bizitza nolakoa zen jakin dezakegu.

Herriko bizitza Udal-Bilkurak zuzentzen zuen bere ondoan herrikide nagusi batzuk zituelarik: medikua, bikarioa, maisua eta herriko epailea hain zuzen ere.

Baina zer gertatzen zen gure herrian Lore Jokoak ospatu ziren urte hartan? Zeintzuk ziren biztanleen arazo eta kezka nagusiak?

Bestalde, herriaren eta auzoen egitura ezagutu nahi baldin badugu 1902ko erroldara jo behar dugu¹, antzerakoa izango zelakoan.

Pixu bakarreko etxeak nagusi dira herrian: 310

Bi pixukoak, aldiz, 46 dira eta hirukoak 5.

Auzoka banatzen baditugu ondorengo hau aurkitzen dugu:

Pixu bakarrekoak : Arrejolan 12, Arriolan 24, Azkoagan 36, Barajuenen 20, Etxagüenen 13, Eguzkierripan 17, Gantzagan 14, Uribarrin 29, Unzellan 30, Olaetan 31, Ibargoian 26, Matxainen 22 (gaur egungo Euskadiko Kutxatik aurrea), Nardeagan 36.

Bi pixukoak: Olaetan 17, Ibargoian 9, Matxainen 4, Nardeagan 16.

Hiru pixukoak: Matxainen 5.

Beste motatako eraikuntzak honako hauek ziren:

- Bordak, txabolak eta sabaia, 132
- Eskortak eta etxolak, 103
- Labeak eta arragoak 111
- Larrainak, 148
- Errotak, 10 (Barajuenen 1, Etxagüenen 1, Eguzkierripan 2, Gantzagan 1, Olaetan 1, Ibargoian 1, Matxainen 2, Nardeagan 2).

1. AAUA. 202 kutxa 1º (03.1902)

- Ortuak, 64
- Erremerteri eta tailerrak, 8 (Olaetan 4, Ibargoian 1, Nardeagan 3)
- Usategiak, 6
- Bainuetxe, 1 (itxita zegoena)

Hauek dira hitz gutxitan (hau ez bait da leku aproposena bailararen bizitza aztertzeko) garai hartako gertakizun garrantzitsuenak.

1899an Arangio eta Añabarriko harrobien harriez baliaturik bideak eta Sorginzubi eta Boluetako zubiak konpontzen dira. Udalak artzai-borda batzuk eraikitzeko baimena ematen du. Bitartean Soldaduen zerrendaketan denbora asko ematen dute. Arazoak daude, batez ere artzai bizkaitarrekin, herri batek bestearengandik eta alderantziz abelburu eta ahuntzak harra-patzeagatik. "Limitado"-aren planoak egiten da. Olaetan kontzejuaren alkatetzarekin arazoak daude. Arangioko Haitzetako egur kopuru handia saltzen da tasazioa egin ondoren. Albinako baserriari eta bere jabea den Celestina Ramirez-i, ardoa eta kontserbak saltzeko baimena ematen zaio. Hiru zaldigurdi eta hiru zamari zituen bidaiariaren zerbitzuari baxa eman zion, horren buru zen Ildefonso Imazek. Herribasoko iratzeak enkantean saltzen dira. Aniceto Salaberri 100 pezetako errentan harategia uzten zaio, eta bestetik, "La Cobachuela" izeneko plazako taberna Celestino Pol-i 150 pezetatan.

Bazkoko bigarren egunean mendiratu behar diren idiskoak Done Anaren zelaian erakusten dira. Gauzak gehiago nahasteko, hurrengo urteko Martxorako denek sistema metriko hamartarra erabili beharko dutelaren oharra argitaratzen da.

Karitate Batzak urte horietan lan ugari zuen: hala nola Haraneko Ospitala egur, haragi, babarrun, baba, indioilar, urdai eta abarrez hornitzea eta Gertrudis Untzeta arduradunari ordaintzea. Bestalde, bizikiak duten familiei laguntzea, sasikumeak (12 zeuden) haztea, etxetik kanpo zeuden umeak elikatzea eta lander hutsak direnak mantentzea dira, besteak beste, Karitate Batzaren betebeharrak.

Baina urte horietan gure bailarak izango duen arazo larriena, baztanga eta sukar tifoidearen agerpena izango da dudarik gabe.

1897an sukar tifoideak lehenengo aldiz agertzen dira gure haranean eta, honekin batera, baztanga banaka batzuk. 1898an baztanga hedatzen da Legution egondako norbaiten kutsaduraren ondorioz, bertako jendea eta abereen artean nahiko zabalduta baitago. Izurritea eragozteko asmoz Udalbatzak bertatik datozen ibiltari, auzoko eta tratulariei bidea galerazten die. Hurrengo urtean gauza berdina gertatuko da Durangora doazenekin, baztanga bertan agertzen da eta. 1900ean Olaetan zabalduko da baztanga, hildako batzuk sortaraziz. Guzti honek, urtero 7 urtetik beherako 7 hildako eta 11 pertsona nagusien heriotza eragiten ditu.

Bailarako sendagilea zen Tomás Capelastegui, 1898ko erdialdera azken urteei buruz egindako txostenean, Kuba eta Filipinaseko gudak direla eta tifusaren ondorioz 200 pertsona hil direla esaten digu, kopuru handiegia momentuko biztanleria kontutan hartuz.

Baina guzti hau gertatu arren, bizitza, ohizkoa den bezala aurrera doa eta hemen betidanik Uztailan ospatzen diren Done Martinen jaietan zezen bat eta bost behi ateratzen dira, suziriak bota eta dantzarako musika jotzen da.

Lore Jokoak baino bi hilabete lehenago, Aramaioko Udalbatzaren partaideen aldaketa ematen da Gasteizen: Francisco Aguirre Ceceagak alkatetzari uko egiten dio eta berarekin, Eusebio Ibabe Cortazar, Jose Luis Uribarren Iturrieta eta Pedro Pablo Aguirriak Udalbatza uzten dute.

Ondorioz Udalbatza honela geratzen da 1899ko Uztailaren 1an:

Alkatea: Francisco Leanizbarrutia
Lehenengo alkateordea: Timoteo Jauregui
Bigarren prokuradore sindikoa: Pablo Lasaga
Ordezkoa: Francisco Madina
Lehenengo erregidorea: Benito Arana
Bigarren erregidorea: Francisco Bengoa
Hirugarren erregidorea: Leon Lasaga
Laugarren erregidorea: Francisco Zubia
Bilkura arruntak igandetan ospatzen ziren goizeko 9etan.

ARAMAIOKO LORE JOKOAK

Lore Jokoei buruz dokumentazioan agertzen diren aztarnak ugariak dira. Hauek Udalbatzaren Akta batzuetan, liburutegi ezberdinetan bildutako eskutizetan eta garaiko aldizkari artikuluetan sakabanatuta dago. Maiz aipatzen dira ere Aramaioko semea den Bixente Goikoetxeari, musika sakraren konpositore eta berritzaile ospetsuari eskainitako artikuluetan.

Lore Jokoak edo Euskal Jaiak, gero ezagutu izan diren bezala, Antoine d'Abbadiek sortu zituen poesia bultzatzeko lehiaketak ziren nahiz eta, aldi berean, oso gertaera aproposak bilakatu ohiturak eta beste herri-manifestazioak plazaratzeko eta ezagutzera emateko.

Poesia sariketa jaien gunea izan arren, horren inguruan beste txapelketa eta frogaz ezberdinak antolatuko dira, ala nola euskal dantzak, pilota txapelketak, txistulariak, etab.

Horrez gain azpimarratu behar da 1876tik aurrera, gerra galdu ondoren, Euskal Jaiak kutsu berri bat hartuko dutela non mugimendu ideologikoa, kulturala eta errebindikatzailea nagusi izango den.

Lehendabizi Urruñan ospatu ziren 1853an. 1879rarte urtero herri ezberdin batean ospatzen ziren arren, Elizondoko jaiekin batera, beste herri batzuetan ere ospatu ziren hala nola 1880 Donostian, Beran, Maulen, etab.

Abbadie 1897an hil zen baina bere alargunak, Virginia Vicenta de Saint-Bonnetek, senarrak hasitako lana jarraitu zuen. Honen helburua Euskal Jaiak eta Euskal mugimendua zazpi probintzietara zabaltzea zen eta bere dirutik ordaindu zituen Aramaioko Lore Jokoak, "Zazpirak bat" lemapean sortutako gastu eta sariak.

Aramaioko jaialdiak R. M. Azkue euskaltzale ospetsuak antolatu zituen, Abbadie-ren emazteak berari eman baitzion enkargua:

"Bere alargunak, gure albistari onen Artekariaren bidez, bete gura izan dau senarrak al izan ezebana, Aramaiona-ko ibar ederra onetarako aukeratuaz" (Euskaltzale).

Aramaionako Udalbatzak gogo onez hartu zuen ideia eta bi eguneko jaiak antolatzeko asmoz komisio bat izendatu zuen.

Betebehar honetan hainbat pauso eman ziren eta hauen berri jakiteko garaiko Udalbatzaren bilkura arrunten aktak aztertuko ditugu.

Aurkitutako ohar batzuei esker badakigu Aramaioko komisioak Arrasateko Udalari kiosko bat eskatu ziola. Kiosko hau Arrasaten 1896an ospatutako "Euskal Jai"-etan erabilitako kioskoa zen (Gipuzkoako arkitektoa zen Exabe jaunak asmatutakoa eta desmuntakorra zena). Aurkitu zen oharrak honela dio:

Bazterrean: "Aramaioko Udalaren eskaera"

"Isasmendi (Francisco, Arrasateko zinegotzia) Jaunaren bitartez Aramaioko Udalak, Arrasaten ospatutako jaietan erabilitako kioskoa eskatzen du, eta gure onespena ematen dugu baldintza hauekin:

1- Joan - etorriaren gastuak berak (Aramaioko Udalak) ordainduko ditu eta, hartu duen bezala bueltatu beharko du.

2- Muntaia eta desmuntaia azkenengo aldiz egin zutenek egingo dute, adituak direlako.

3- Alokatzeko prezioa 50 pezetatan ezarri da eta, apurketak edo hondaketak gertatu -ko balira, gastuak bere kargu geratuko lirakeke"²

Erabilitako kioskoaren argazki bat 1896ko Euskal Erria aldizkarian agertzen da, Arrasateko Euskal Jaiei zuzendutako artikuluan.

Jaiak neurri batean finantzatzeko, eta orduan ohizkoa zen bezala, egun horietako ardo kontsumoa zamatzeari pentsatu zuten, baina Gasteizen ez zieten onartu. Jaien gastu orokorra, nahiz eta hasiera batean baxuagoa izan, 1.994,30 pezetakoa izan zen. Hau oso zifra altua da konparatzen badugu Aramaioko Ospitalak gastatzen duenarekin (30 pzt. gehiago) urte oso-rako. Besteak beste, urte hortako Deuna Martin jaietan 329,30 pzt. gastatu ziren, zezenaren gastua ere kontutan izanik³.

Hau nahikoa da ulertzeko zer nolako garrantzia eman zieten jai hauei herrian eta inguruetan, eta baita ere zelako prestakuntzak egiten ziren garbitzen, ormak zuritzen eta eraikuntza publikoak nahiz pribatuak apaintzen.

Holan Uztailaren amaieran Udalak martxan jartzen du antolakuntza, bere akordioetan agertzen den bezala:

Bazterrean "Euskal Jaiak"

"Euskalzale-aren administratzailea den, eta Bilboko Jardines Kaleko 10ko 2an bizi den P. de Mokoroa jaunaren gutun bat, hile honetako 18an idatzita, jaso dugu non, Antoine d'Abbadie txit jaunak, euskal ohitur maiteak defendatzeko sortu zituen Euskal Jaiak gure bailara honetan ospatzea erabaki dutela jakinerazten digu, hemengo udalbatzaren ongiri -tziaz betiere. Jaiak hurrengo Irailaren 8, 9 eta 10ean ospatuko lirakeke.

Aho batez, herritarren sentimenduen interpretari fidelak garelakoan, aipatutako propo -samena onartzea erabakitzen dugu, Probintziko Gobernadore Zibilak baimena ematen badi -gu, holan eskatu bait diogu, eta bihotzez eskertzen dugu herri honi ematen zaion aukera.

Aipatutako Jaiak merezi duten ospea izan dezaten, behar den antolokuntza aurrera eramateko komisio bat izendatzen da. Komisio hau Euskalzale-ko komizioarekin harremanetan jarriko da, Udalbatzak egun horietan prestatu behar dituen jaialdiak ezagutzeko, hala nola beste era bateko lanak: obrak, garbiketak, zuriketak, etab.

Komisioan Udalbatzako alkateak (Fco. Leanizbarrutia) eta erregidoreek, Benito Arana eta Fco. Aguirre Ceceaga jaunek hartuko dute parte"⁴

2. AUA. Aktak 1899-1901. I. orr. 34r

3. AAUA. Aktak 1899-1902. orr. 16v eta 18v

4. AAUA. Aktak 1899.07.23, orr 8r eta v.

Euskalzale-aren administratzailearen gutuna ez dugu aurkitu ez bait dago Aramaioko Araneko Artxiboan urte horiei buruzko dokumentaziorik. Aipatu behar dugu ere gutunaren sinadura irakurtzerakoan akats bat dagoela zeren eta ez da inor ezagutzen Euskalzale edo Azkueren inguruan, P. de Mokoroa izena duena. Ezagutzen da, bai, Valeriano de Mokoroa bat, Tolosan inprimatzailea dena eta, urte horretan bertan, bere lana utzi eta Azkueren kolaboratzaile giza hasten dena. Beharbada honek B kin sinatuko zuen⁵ eta Aramaion P batekin konfunditu zuten.

Bigarren gutun batean Aramaioko Udalbatzak lehenago aipatu den administratzaileari jaiak ospatzeko baimena jaso dutela jakinarazten dio.

Gutunak honela dio:

“Aramaioko Udalbatzak. 282 zkia.

Nire lehendakaritzapean dagoen Udalbatza honi, bilkura arruntan elkartuta data hone-tan, jakinarazi diot zure gutun bat jaso dugula, hile honetako 18an idatzita, non, Antoine d'Abbadie txit Jaunak euskal ohitur maiteak defendatzeko sortu zituen Euskal Jaiak, gure bailara honetan ospatzea erabaki duzuela komunikatzen diguzu, hemengo Udalbatzaren ongiritziaz beti ere. Aho batez, hirritarren sentimenduen interpretari fidelak garelakoan, aipatutako proposamena onartzea erabakitzen dugula bihotzez eskertuz herri honi emanten zaion aukera, jakinarazten dizut. Era berean, aipatutako Jaiak merezi duten ospea izan dezaten behar den antolakuntza, atzerapenik gabe, aurrera eramateko komizio bat izenda-tu dela komunikatzen dizut. Komizio hau zuen herrira urbiduko da, hile honen 27an, ostegunean, Azkue jaunarekin behar den guztia argitzeko.

Akordatutako guztia jakinarazten dizut, zure ezagupenerako eta behar den guztirako.

Jainkoak zain zaitzala.

1899ko Uztailaren 23an Aramaion.

Fco. Leaniz-Barrutia (izenpeko)

*P. de Mokoroa Jauna, Euskalzaleen Administratzailea.
Bilbo”⁶*

Probintziko Gobernadore Zibilaren baimena ez dugu aurkitu baina bai zeharkako informazioa ematen digun beste datu bat :

“150 pza. ematen zaizkio Aramaioko Udalarri, Irailako 9an eta 10an ospatuko diren Euskal Jaietan egingo den ferian, bertako ganaduari sariak emateko”⁷

Jaien antolakuntza aurrera doa eta batera, obrak, zuriketak ... beste datu honek erakusten duen bezala:

“Elisa, sakristia, bataiategi eta arkupea zuritzeagatik, 850 pza”⁸

5. AL. Mokoroa, Eduardo eta Valeriano. Gutunak

6. AL. Leaniz-Barrutia, Francisco. Gutunak

7. Arabako BOE. 1899ko Abustuaren 17an

8. AEA. Cuentas de Fabrica, 1899, orr 106

Eraikuntzen zuriketa, urte haietan, asko erabiltzen zen neurria zen, bai osasun arloan baita ere apainketa arloan- jaiak ospatzen zirenean.

Jaien prestakuntza oso garestia zenez, Udalbatza beste akordio batera iritsi zen gastuak arintzeko asmoz:

“... datorren Iraileko 9an eta 10an Bailara honetan ospatuko diren Euskal Jaiak sortuko dituzten gastuak arintzeko eta, kontutan izanik Administrazioaren esku daudela ardoari buruzko probintzi eta udal-zergak, komisio probintzialari aipatutako egun horietan 16 litroko prezioa pezeta batean igotzeko baimena eskatzen diogu”⁹

Nahiz eta Aramaioko Udalak proposatzen duen neurria nahiko arrunta izan garai hartan igoera handia da kontutan izaten badugu peseta bat dela %20a alondegiairen prezioaren gaitetik. Garai hartako prezioak zeintzuk ziren jakiteko azter ditzakegu udal - alondegiaik, jaiak baino urtebete lehenago, 1898ko Irailaren 21an finkatu zituenak:

“Jateko, edateko eta erretzeko diren produktuen gain Udalak finkatutako batzbesteko tarifak...

- Ardoaren balio eta garraioa, 16 litroko	5	pzta
- Olioia, 11,502 kg-ko	13	pzta
- Pattar, likoreak eta espirituak, litroko	0,75	pzta
- Haragia, kiloko	1	pzta
- Urdaia, 11,502 kg-ko	17	pzta
- Ardiak eta arkumeak	4	pzta
- Itsasoko arrantzua, kiloko	2	pzta

Jateko, edateko eta erretzeko diren produktuen gain Udalbatzak finkaturik dituen Udal-zergak....

- Probintzi eta udal-zerga bailara guztiko ardoaren gain, 100 kiloko edo hektolitroko	11	pzta
- Olioaren ariela, kiloko	5	cent
- Pattar eta likorren ariela, gradubakoitzeko	4	zents. litrobixako
- Haragiaren gain zamaketa kiloko	10	zents
- Urdaiaren zamaketa, 11,5 kiloko	1	pzta
- Ardi eta arkume bakoitzeko	25	zents
- Itsasoko arrantzu, legatza, bisigu, kiloko	10	zents
- Itsasoko arrantzu, sardinak, antxoak, atuna, kiloko	5	zents
- Alondegiairen zerga, 16 litro edo kiloko	25	zents
- Ziurtafiriengatik zerga	1,50	pzta ¹⁰

Alondegiairen tarifa gehitzen badiogu produktuaren prezioari, jakingo dugu zein den prezio zehatza.

9. AAUA. Aktak 1899-1902, orr 15v (1899.08.27)

10. AAUA. Kutxa 450. 22 zkie. (1898.09.12)

Ardoa izango zenez, jai egunetan, gehien kontsumituko zen edaria Udalak hartuko zuen dirutza handia izango zen, horregatik eskaera hori baina Probintziko Komisioak ez du igoera hori baimentzen:

“Aramaioko Udaltzaren asmoa gaitziritzen da. Honek baimena eskatzen du, Irailaren 9an eta 10an zehar, ardoaren prezioa peseta batean igotzeko, Bailaran egun horientan ospatuko diren jaien gastuei aurre egiteko”¹¹

Bailarako Udaltzaren Aktek ematen dizkiguten hurrengo berriak Jai ostekoak dira:

*“Hile honen 9an eta 10an Bailara honetan ospatu diren Euskal Jaiak antolatzeko komisi -
sioak, 1028 pezetatara igotzen diren gastu orokorren zerrenda, aurkestu du.*

Udaltzak ahobatez onartu du”¹²

Hurrengo oharra Azarokoa da, bertan Euskalzale-aren Administrazioailearen izenaren zuzenketa agertzen da. Honela dio:

*“Euskalzale-aren administrazioailea den B. de Mokoroa-ren gutunaren berri ematen dut,
hark zera dio:*

*Alkate jaunak bidal dezala Irailaren 9an eta 10an ospatutako Jaietan sortutako gastu
guztien zerrenda bat D' Abbadie Andreari edo bere etxezaina den Basilio de Yarrategui
jaunari Baionara. Azkue jaunari bidaltzeko akordiora ailegatzan da, Bilbora, Udaltzak jaun
horrekin konprometitu baitzen”¹³*

Akordio hau eta kontserbatzen den hurrengo gutunaren artean Aramaioko alkatearen beste gutun bat egon omen zen baina ez da kontserbatzen Azkue jaunaren artxiboan.

Dirudienez arazo batzuk sortu ziren jaien antolatzaileen eta Azkue jaunaren artean eta alkateak, hori dela eta, azken honi gustatu ez zitzaion gutun bat bidali zion erantzunagatik susma dezakegunez.

R.M. Azkue jaunak Aramaioko alkateari bidalitako gutuna:

“1899ko Abenduaren 14a. Bilbon

Fco. Leaniz-Barrutia jauna

Jaun agurgarria:

*Oraintxe jaso dut zuen gutuna: portatu naizen eran portaturik, zuek dakizueenez, eta
bestalde apaiza izanik Bailara hartako seme batek ere ez zela inoiz ausartuko idatzi duzen
bezalako gutuna idazten, eta zuk alkate bezala are gutxiago, pentsatzen nuen. Uste duzu
gutxi sufritu dugula guk bidalketaren atzerapenez ?.*

11. Arabako BOE. 1899ko Irailaren 7ra

12. AAUA. Aktak 1899-1902, orr 18r (1899.09.23)

13. AAUA. Aktak 1899-1902, orr 28r (1899.11.19)

Herenegun Mokoroa jaunak nire izenean bidali zizun gutunean esaten genuen, egun horetan bertan jaso nuela nik D' Abbadie-ren alargunak berak bidaletako gutuna, 1220 pzta zituela barnean.

Eta otzana bat egiten duenak hamaika egin ditzakenez, zure partez exijitzen dut (inoiz gehiago ez jartzeko zalantzan gure kaparetasuna):

1- Kobratzera datorrenak ekar dezala zure baimena sinatuta eta Udaletxeko zigilu-markaz.

2- Ikus dezala D' Abbadie-ren alarguna zen gutunaren data, ez dezazuela pentsa dirua geldirik egon dela gure eskuartearen denboraldi batean.

3- Ikus dezala ere pezetak bidali izan dituela eta ez frankoak

4- Ekar dezala, baimenak bezala, ordainagiria sinatuta eta zigilu-markaz.

Nire bihotzmina adierazten atzerapenagatik eta zure susmo zital horiegatik, agurtzen zaitu.

Ramón María de Azkue (izenpe)¹⁴

Ez dugu aurkitu Azkuek aipatzen duen gutuna eta, Udalbatzaren Aktetan ere, ez da isladatezen arazorik zegoenik euren artean.

Gai honi buruz aurkitu dugun erreferentziren batek honela dio:

“Irailearen 9an eta 10an ospatutako Euskal Jaiei gastuak kobratzeko Bilboko, Resurrección María de Azkue jaunarengana, alkate jauna bidaltzea erabakitzen da”¹⁵

Eta bestea Azkuek ordaindutako ordainagiriaren kopia bat da.

Orrilaurdena. Aramaioko Udalbatza Kostituzionalaren zigilu-markarekin.

“Arabako Aramaioko Udalbatzazatik helburu honekin eskuetsita, Bilboko herritar apai-za den Resurrección María Azkue-ren eskutik eta data honetan, 1140 pzta jaso ditudala aitortzen dut, kopuru han izan da azken Iraileko 9an eta 10an ospatutako Euskal Jaiei ondo-rioz gastatutako dirua eta Udaletxeko fondoetatik ordaindu izan zena.

Eta behar den lekuan ageri dadin sinatzen dut eta zigiluz markatzen dut, Bilbon 1899ko Abenduaren 21ean.

Francisco Leaniz-Barrutia

1140 pzta dira”¹⁶

Hurrengo da Euskal Jaiei buruz Udalbatzaren Aktetan agertzen den azken oharra:

14. AL. Gutunak. Leaniz-Barrutia, Fco.

15. AAUA. Aktak 1899-1902, orr. 33r (1899.12.16)

16. AL. Gutunak, Leaniz-Barrutia, Fco.

“Irailaren 9an eta 10ean Bailara honetan izandako Euskal Jaien gastu eta sarreraren liki - dazioaren berri ematen da. Gastuak mila bederatzirehun eta larogeita hamalau peseta izan - da eta sarrerak milaberrehun ta larogei pezeta Udalbatzak gastatu duena, konzeptu guztie - tarako, zazpirehun ta hamalau peseta ogeitahamar zentimorekin.

Udalbatzak, ahobatez, aprobatzen du”¹⁷.

ARAMAIO IRAILEKO 9an ETA 10ean

Aztertu ondoren Euskal Jaien inguruan Udalbatzak izan zituen gora-beherak goazen orain aipatzera zeintzuk izan ziren egun bi horietan eman ziren jailadiak eta txapelketak. Horretarako beharrezkoa da R.M. de Azkue-k idatzi zuena irakurtzea informazio zuzenena berak baitzeukan.

Euskalzale aldizkarian plazaratu zuen, “Euskal-iaialdiak Aramaionan” izenarekin eta beste artikulu batekin osatuko zuen lehiaketan irabazleak aipatzen. Bigarren artikulu hori aldizkari berdinan publikatu zen “Aramaio Euskal iaia” izenapean.

LEHENENGO EGUNEAN

A. Goizeko 8retan. *Abelgorri ta zurdabereen batzaldi ta erakusketa.*

Antonio Ibañeta-ri, erri-behi esnetsuenagatik, 60 pzta

Pedro Pagaldai-ri, sekorrak onenagaitik, 30 pzta

Felipe Larrea-ri, umeta guztiko behorrik onenagaitik, 60 pzta

Silbestre Bengoa-ri, urtebiko txikorik ederrenagaitik, 30 pzta

B. 9,30etan. *Lasterkarien ariniketa.*

Lehenengo saria, Jose Agirianori-i, 30 pzta

Bigarrena, Nikolas Mondragón-i, 20pzta

Hirugarrena, Felix Irazuegi-i, 10pzta

Z. 10etan. *Zangolari batzaldia.*

Lehenengo, Norberto Azkoaga-ri, 30 pzta

Bigarrena, Basilio Garate-ri, 15 pzta

D. 10,30etan. *Albokarien batzaldia.*

Lehenengoa, Martin Larrañaga-ri, 30 pzta

Bigarrenaren, duin etzen inor agertu

E. 11etan. *Bertsolarien batzaldia.*

Lehenengoaren duin etzen inor agertu

Bigarrena, Jose Migel Elejoste-ri, 20 pzta

Hirugarrena, Jose Azkoaga-ri, 15 pzta

Laugarrena, Franzisko Garamendi-ri, 10 pzta

17. AAUA. 1899-1902, orr 33v (1899.12.23)

F. Arratsaldeko. 3,30etan. *Txistularien batzaldia*.

Lehenengo saria, lau txistu-danbolin aldra onenarentzako, Sabas Amilburu-ri, 75 pzta
Bigarrenaren duin etzen inor agertu
Txistulari bakar onenaren lehenengo saria, Gilermo Arizaga-ri, 50 pzta
Bigarrena, Sabas Amilburu-ri, 25 pzta

G. 4,30etan. *Gorularien batzaldia*.

Lehenengoa, Ines Larrañaga-ri, 20 pzta
Bigarrena, Bonifazia Irazuegi-ri, 10 pzta
Hirugarrena, Petra Monasterio-ri, 5 pzta

H. 5etan. *Pedardunen batzaldia*.

Lehenengoa, Maria Nafarrate-ri, 15 pzta
Bigarrena, Bonifazia Irazuegi-ri, 10 pzta
Hirugarrena, Juana Goikorrotea-ri, 5 pzta

I. 5,30etan. *Aurrekularien batzaldia*.

Lehenengoa, Rafael Agirre-ri, 25 pzta
Bigarrena, Indalezio Elgea-ri, 15 pzta
Hirugarrena, Seberiano Barrutia-ri, 10 pzta

BIGARREN EGUNEAN

Goizeko 8etan. *Ezpata-dantzarien batzaldia*.

Lehenengo saria, Rafael Agirre eta bere taldeari, 175 pzta
Bigarrena, Juan Pedro Zengotita eta bere taldeari, 115 pzta

10etan. *Meza Nagusia*.

Meza-bitarteko sermoia Azkue abadeak egin zuen.

Meza ostean lehenengo saridun aurrekulariak, txistulari sarituen laguntzaz aurreku
"antsinako garbi garbie" dantzatu zuten.

Arratsaldeko elizkisunen ondoren, ezpata-dantzari saridunek dantzaldi luze bat egin
zuten.

Azkenean, eta Jai hauei amaiera emateko urrezko makila bat eta ontzurre bateko saria
eman zitzaizen bertso-lan onenei. Lehenengo hiru saridunen testuak eta aurkeztu ziren beste
12 testuen izenburuak ezagutzen ditugu.

Ondorengoak dira:

1. Euskaldun bioletea
2. Uso zerutar bat
3. Euskal-Errie (eresia ta itz neurtuak)
4. Ama-gabe!
5. Gau-erdiko eskillaren otsa
6. On Anton d' Abbadie jaunari oroimena
7. Mundu zoragarriya
8. Mari Anton Aramayoarra
9. Abbadie jakintsuentzat talluntza baten ondoren
10. Ama baten penak
11. Gure arbola

12. Negar egin daigun!
13. Ama bat
14. Kabira
15. Gure aritza.

Lehenengo hirurak eranskinean agertzen dira.

Beste jaialdi batzuei buruz hitz egiterakoan aipatu beharra dago, orduan oso estimatuak ziren pelota partiduak, "pelotakokirik ezagatik ezta pelotarien batzaldirik egongo". Frontoi bat izatea aramaiotarren aspaldiko nahia zen baina, orain dela gutxirarte ez da lortu, polikiroldegi berria egin den arte.

Sokamuturra, zezenketak edo antzeko soladaldiei buruz Azkuek berak kontatzen digu:

"Ari-topeka, idi-tema edo indarketa antzarrai kokota kentze ta zezenketa ta beste erdalio las gogor odoltsurik ezta iaialdi onetan ikusiko, ez bakarrik Abbadie zan iaunaren alargu - naren aginduz, baita bere iaialdi onetan esku luze edo laburra dauken gustion gogoz".

Jaiek, espero zen bezala, jendetza handia bildu zuten eta solasaldiak denen gustokoak izan ziren Azkuek aitortzen digun bezala:

"Aspaldiko urteotan ezta Aramaion ikusi aurtan lango gizatalde ugaririk. Mundragoe egun orretan, batez bere bigarreneau, Aramaio betetzeko ustu zan. Mondragoe-k dantzari-aldra, aureskulari, tsistulari ta... lasterkaritan ederto ornitu dauz Aramaio-ko iaioak.

Iñoz ezer ikusi bakoak zirudien an batu zireanak : aoa zabalik egozan begira ta adi. Ezagun zan eskuetan azkordirik ezeukena: beti egozan tsaloka. Udaletse edo Ayuntamiento-koak, ezetarazo bear etzala, gure ustez, euren Etse ederreko pendiz edo balkoepaan bizien zerraldoa zirudien zer bait, egin eben, andik epaila edo juesak sariak emoteko".

Udalbatzak Arrasateko Udalari eskatutako kioskoari buruz hitz egiten ari dela suposatzen dugu, nahiko apaingarri askokoa baitzen, guztiz garaikoa.

Garai hartako idazkiek amaitzen dute esanez:

"Bestela gauza guztiak egin zireau ederto. Eskerrak emon beioez Aramaiotarrak (eta guztien ezinean ondo izango litzake Alkateak emoteo) Antoine d' Abbadie iaunaren alargu - nari ia onek egiteko dirua emon dabelako".

Antolatzaileekin arazoak.

Azken momenturako utzi dugu jaiek izan zuten arazo larriena : Bixente Goikoetxeak presatutako Mesa, Udalbatzak berak enkargua emanda, bertan behera uztea.

Ikus dezagun Azkuek esaten duena:

"Meza-arazoan, moldakatsak izan ezpadira bere, ganora gitsitsu euki dabe atarako ardura dunak. Erriko seme argi bati mesedez eta arenka eskatu iakon Meze berri bat egin eiala aia onetarako; eta Meza eginda gero musika-gauzetann baino osabedarren barrri geia - go dakian baten bitartez, ez Azpeitiarrik ez Bitoriarrik etzan etorri Meza ori entzun-eragitera. Otsandioko aldia batek Gorriti-ren si bemolekoa eresi edo kantau eban".

Hau dela eta, nahiz eta azkenean ospatu guztiz prestaturik eta lan probintzitako egunkarietan iragarrita zeudelako, Azkue jaiak bertan behera uzteko zorian egon zen Udalaren tamainako azpikeriaren aurrean.

Zergatik baina eritzi aldaketa hori azkenengo momentuan?. Zerk bultzatu zuen Udalbatza beste meza bat aukeratzera, berri bat egiteko enkargua emanda zuenean ?.

Eritzi aldaketa honen sustraia Bixenteren aitak Udalbatzarekin izandako istiluak daudela uste dugu.

Azken guda karlistaren garaian, eta herriko alkatearen ihesa zela eta, Bixente eta bere aitak hartu behar izan zuten euren gain janariaren ornitzea, gerran zeuden bi ejerzitoentzako eta, nahiz eta biak ahalegindu herriarentzat astuna zen zama hau arintzen, herriak beti kontsideratu izan zituen militarren lagun.

Militar honen artean Santa Cruz apaiza dugu, Aramaion sarritan geratzen zena.

Beste alde batetik, eta gauzak gehiago nahasteko, ejerzito liberaleko Pavía jeneralak Aramaioko alkateari hurrengo agindua eman zion : Karlista zen Santa Cruz apaiza Aramaio inguruan agertuz gero, abisua emateko. Baina abisatu nahiean zihoan mezularia, karlistek harrapatu eta akatu zuten eta Goikoetxea jaunari, mezularia bidaltzeagatik 5.000 errealeko isuna jarri zioten.

Guzti hau dela eta, Udalbatza eta Bixente Goikoetxearen aitaren artean arazo bat baino gehiago sortu zen.

Baina ez dirudi hau arrazoi bakarra zenik: Azkuek esaten digu zerikusi handia izan zuela ere, eritzi aldaketa honetan, "... musika-gauzetan baino osabedarren barri geiago dakian batek..."

Ez du izenik aipatzen baina Capelastegi jauna, sendagileari buruz hitz egiten ari dela uste dugu. Zergatik ?. Alde batetik badakigu ez zela oso "euskalzalea", eta kontutan izan behar dugu Bixente Goikoetxea ejerzito karlistako intendentea izan zela. Bestetik sendagileak Udalbatzan eskuhartze handi izan omen zuen, hurrengo datuak adierazten duen bezala: 1898an, praktikariari kargua berriztu behar zaionean, Capelastegi jauna horren aurka aurkituko dugu. Sendagileak euskalduna ez zen beste pertsona bat nahi omen zuen lanpostu horretarako. Eztabaida latz batzuen ondoren Udalbatzak lortu zuen lanpostuan mantentzea orduan zegoen praktikaria, nahiz eta Capelastegi Jaunak denuntzia jarriko ziela meatxatu.

Gordetzen diren Bixente Goikoetxearen eskutitzetan ez da ezer aipatzen gai honi buruz baina badakigu Bixente oso pertsona ixila zela beraz ez da harritzekoa. Bestalde bera apaiza zen eta oso pertsona ona, honek ere azalduko luke gaia ez aipatzea.

Bere izaerazi buruz hitz egiterakoan kontatzen dute, Cos y Macho apezpikuak, arazo zailletan Goikoetxeari zuzentzen zitzaionean "llamad a ese santo" esaldiarekin deitzen ziola.

Ez dugunez ezer aurkitu Azkue eta Goikoetxearen arteko eskutitzetan, Bixente hoberen ezagutzen zutenei eta bere gaur egongo ondorengoei zuzendu gara zerbait gehiago jakiteko mezaren gaiari buruz, baina alferrik

Eranskina:
Saritutako olerkiak



Olerki hauek orain dela gutxi argitaratu dira Patxi Salaberri Muñoak Aramaioko Lore Jokoei buruz egindako lan batean, Karmel Sorta 7, aldizkarian.

EUSKALDUN BIOLETEA

Felipe Arrese ta Beitia (Otxandio)
Lehenengo olerki saritua bizkaieraz.
(Euskal-Erria. Revista bascongada. 2º semestre. 1899)

ARAMAYORI GORATASUNA

"Anboto, Udalach eta Murugaiñ
Goio gorago eregi,
Ta begiratu zuek gordetan
Dozuen ibar oneri;
Euskaldun lorategi eder bat
Beronek badau irudi
¿Bioletaren izena ondo
Eletorkio danoni?

Bioletea izanik berez
Be-zale umill benetan,
Bedar artean lotsaz legeche
Dana, albadau gordetan;
Bertsolariak, baiña alan bere
Umilltasuna goietan
¿Eztabe iarten euren kantakaz
Lekurik ederrenetan?

Ta bioletea be-zalecho bat
Ibar au mendiz gorderik,
Irudituten baiat, nik ¿zelan
Ichi gaur iazo bagarik?
¿Zelan Araban berau izanda
Euskaldun utsa bakarrik,
Bertan lorarik ederren dala,
Eztot kantauko emen nik?

Kantauko dot nik ibar au dala
Arabar danen ondrea,
Kantauko dot nik berau gaur dala
Euskaldun bioletea;
Kantauko dot nik dala pichi bat
Motzak ezaindu bagea,
Euskal-usaiña baiño besterik
lausten ichakon lorea

Kantauko bot bai kantau gizaldi
Asko ein arren munduan
Garbia dala au oiturretan
Bertako erreken moduan;
Mendi ederrez inguraturik
Emenche bakar lekuan,
Lan egunez da gabez lo einda
Euskera Amaren altsuan

Onek dirudi Euskerearen
Alaba berarizkua
Pichiletakaz dabena iarten
Chukun chukunik burua;
Dalako berau milla abia
Zuri zurien lekua,
Eta ainbeste santutegien
Esparru eder dontsua

Toki autua benetan zara
Ainbeste eleizaz iantzita,
Ibar malats bat zu Aramayo
Echalde ederrez iosita,
Murugaiñdik nik zuri begira
Kerizpechoan iarriata,
Zeinbat alditan esan etedot
¿Zu zareala polita?

Damugarria litzake baiña
Gozetan dozun gloria,
Ikusitea dana galduta
Zu buruz beera iarria;
Damugarria izanik zu gaur
Euskaldun bizi tokia,
Amai edaten gero ikustea
Umeak erdal titia

Damugarria litzate bada
Osasunagaz Euskera,
Zugan gaur bizi eginda biar
Bialdutea lurpera;
Baiña, mendiok zutid badagoz
Lotsa bagako erdera,
¿Azartuko da ¡o! Aramayo
Zure izketan illtera?

Orretariko arerio ta
Etsai ain gerralaria
Sartu eztedin inguru inguru
